

LANDAKETA-MARKOA



Gure barazkiak landatzeko orduan, landareen artean uztea komeni den distantziaren inguruko zalantza sortzen da askotan. Izan ere, oso garrantzitsua da landare bakoitza distantzia egokira landatzea.

Landareak elkarrengandik hurbilegi landatuz gero, hazi ahala, argia, elikagaia eta espazioa lortzeko lehian arituko dira euren artean, kalte ezberdinak sortaraziz:

- Landareek ez dute espazio nahikorik izango zabaleran garatzeko, eta ondorioz, eguzkiaren argiaren bilatu nahian asko luzatuko dira, landare altuak sortuz, baina indarrrik gabekoak. Honelako landareak nekez loratzen dira behar bezala edota nahiko fruitu eman.
- Landareak euren artean lehiatzen dira lurreko elikagaiak xurgatu ahal izateko. Ohikoa da landare guztientzako elikagai nahikorik ez egotea lurrean, eta, beraz, baliteke landare batzuk behar bezala ez haztea.

Eta alderantziz, landareen artean leku gehiegi utziz gero, gure baratzeko lur asko alferrik galduko dugu.

Landatzeko orduan, landaretxoen tamainaz ere ez ginateke fidatu beharko. Adibide bat jartzearen, orburu-landareak urazarena baino pixka bat handiagoa badira ere, letxugen

landareen artean 30 cm-ko tarte ematea nahikoa da, eta aldiz, orburuen artean metro bat inguru utzi beharko litzateke, azken honek espazio handia hartzen baitu garatzen denean.

Guzti honengatik, baratzezaintza inguruko testuetan *landaketa-markoa* deritzon kontzeptua erabiltzen da. Landare bakoitzari landaketa-markoa ezberdin bat ematen zaio: landare bakoitza egoki garatu ahal izateko distantziarik egokiena adierazten du landaketa-markoak, baina, jakina, lurra alferrik galdu gabe.

Landaketa-markoa bi zenbakiz adierazten da: lehenengo zenbakiak ilara bereko landareen artean utzi behar den distantzia zehazten du, eta bigarren zenbakiak aldiz, errenkaden artean utzi beharrekoa. Bi neurriak zentimetrotan ematen ditu.

Adibide bat: alberjiniaren landaketa-markoa 40 x 70 da. Honek esan nahi du ilara bereko landareen artean 40 cm-ko tarte utzi behar dela eta alberjiniaren artean berriz, 70 cm-koa.

Espezie bakoitzarentzako landaketa-markoa ez da aldaezina, erreferentzia bezala erabili beharko genuke. Izan ere, landaketa-markoa alda daiteke barietate askoren arabera: baratzearen kokapena, lursailaren orientazioa, landatutako barietatea (espezie bereko barietate batzuk beste batzuk baino gehiago garatzen dira), baratzearen antolaketa-modua, e.a.

Hona hemen zerrenda bat, ohiko barazkien landaketa-markoak jasotzen dituen:

Alberjinoa	40 x 70	Kuiatxoa (kalabazina)	100 x 100
Angurria (Sandia)	100 x 100	Lekak (Baina eta babarrunak)	40 x 100
Apioa	30 x 40	Lonbardako aza	50 x 70
Arbitxoa	5 x 15	Luzoker edo pepinoa	60 x 100
Ardi mihia edo kanonigoak	10 x 20	Meloia	100 x 100
Artoa	30 x 90	Neguko eskarola	25 x 30
Neguko azak	50 x 70	Orburuak	100 x 100
Neguko Azaloreak	50 x 70	Patata	30 x 70
Azenarioa	10 x 30	Perrexila	20 x 20
Baba haundiak	15 x 80	Piperra	40 x 60
Baratzuria	10 x 30	Porrua	10 x 30
Borraja	25 x 30	Tipula	10 x 25
Brokolia	50 x 70	Udaberriko tipula	10 x 25
Bruselako aza	50 x 70	Tomatea	40 x 80
Edankuia edo kalabaza	100 x 250	Uraza berdea (letxuga)	25 x 30
Erremolatxa	10 x 30	Uraza gorria	25 x 30
Ilarrak	10 x 90	Zainzuriak	25 x 30
Jateko arbia	20x35	Zerba	30 x 40
Kardua	80 x 100	Ziazerba edo espinakak	25 x 30

MARCO DE PLANTACIÓN



A la hora de plantar nuestras hortalizas, la distancia que hay que dejar entre plantas suele ser una de las dudas más habituales. Es importantísimo plantar cada especie a la distancia adecuada.

Si plantamos las plantas demasiado cerca unas de otras, a medida que crezcan competirán entre ellas por la luz, el alimento y el espacio, con consecuencias diferentes:

- Las plantas no tienen espacio suficiente para desarrollarse en anchura, y como consecuencia se ahílan, es decir, crecen mucho en altura para poder captar la luz del sol. Se forman plantas altas, pero sin fuerza, que difícilmente florecerán y/o fructificarán de manera adecuada.
- Las plantas compiten por el alimento del suelo. Es habitual que no haya suficiente alimento para todas, con lo que el desarrollo de algunas puede verse comprometido.

Por el contrario, si dejamos demasiado espacio entre plantas, desaprovecharemos mucho terreno de nuestra huerta.

Tampoco debemos fiarnos del tamaño del plantel cuando lo plantamos, ya que, por poner un ejemplo, un plantel de alcachofa es un poco más grande que el de una lechuga, pero mientras que la distancia que hay que dejar entre lechugas es de unos 30 cm, entre alcachofas deberemos

dejar alrededor de un metro, porque esta última se desarrolla hasta ocupar un espacio muy grande.

Es por todo ello que en los tratados de horticultura se utiliza a menudo el concepto llamado *marco de plantación*. A cada planta se le asigna un marco de plantación diferente, que representa la distancia más adecuada para que dicha planta pueda desarrollarse plenamente, pero, obviamente, sin desaprovechar terreno.

El marco de plantación se representa por dos números: el primero de los números representa la distancia que debemos dejar entre plantas de una misma hilera y el segundo número hace referencia a la distancia que debemos dejar entre filas. Ambas distancias medidas en centímetros.

Un ejemplo: el marco de plantación de la berenjena es de 40 x 70. Eso quiere decir que entre planta y planta de berenjena de una misma fila conviene dejar 40 cm de distancia, mientras que, entre las diferentes hileras de berenjenas la distancia será de 70 cm.

El marco de plantación para cada especie no es inamovible, es una referencia que puede variar dependiendo de la localización y de la orientación de la huerta, de la variedad (hay variedades de una misma especie que se desarrollan más que otras), del modo de organización de cada huerta, etc.

Aquí os dejamos una tabla con los marcos de plantación para las hortalizas más comunes:

Acelga	30 x 40	Espárragos	25 x 30
Ajo	10 x 30	Espinaca	25 x 30
Alcachofa	100 x 100	Guisante	10 x 90
Alubias	40 x 100	Haba grande	15 x 80
Apio	30 x 40	Lechuga	25 x 30
Berenjena	40 x 70	Lechuga roja	25 x 30
Berza	50 x 70	Maíz	30 x 90
Borraja	25 x 30	Melón	100 x 100
Brócoli	50 x 70	Patata	30 x 70
Calabacín	100 x 100	Pepino	60 x 100
Calabaza	100 x 250	Perejil	20 x 20
Canónigos	10 x 20	Pimiento	40 x 60
Cardo	80 x 100	Puerro	10 x 30
Cebolla	10 x 25	Rabanito	5 x 15
Cebolleta	10 x 25	Rabano de mesa	20x35
Col de bruselas	50 x 70	Remolacha	10 x 30
Col lombarda	50 x 70	Sandía	100 x 100
Coliflor	50 x 70	Tomate	40 x 80
Escarola de invierno	25 x 30	Zanahoria	10 x 30